

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Oteiza Museoak atek zabaltzeko egunak antolatu ditu asteburu honetarako

Altzuzako zentroa doan ikusteko aukerarekin ospatuko da Oteiza eskultorearen heriotzaren urteurrena.

Jueves, 03 de abril de 2014

Oteiza Museoak Jorge Oteizaren (1908ko urriak 21 - 2003ko apirilak 9) heriotzaren urteurrena ospatuko du apirilaren 4, 5 eta 6an atek zabaltzeko hiru egun antolatuta; Altzuzako zentrorako sarrera doakoa izango da.

Egun horietan, bisitariak "Oteiza 1908-2008. Bilduma" erakusketa ikusi ahal izango dute, artistaren eskultura-lanen bilakaeraren ibilbidea egiten duena. Horrez gain, aldi batez ikusgai dagoen "Isiltasuna. Manuel Calvoren zuri-beltzeko pintura (1958-64)" erakusketa ere ikusteko aukera egongo da, arte geometriko eta esperimentalaren artista ezagunenetako bat denaren lanari eskainitakoa.

Bisitariak Lantegi-etxea ere ikusi ahal izango dute eta, bertan, artistaren eta obraren inguruko ikus-entzunezko proiektioez gozatu eta artistaren biografiari eta sorkuntzari lotutako gaikako unitate eta unitate geografikoen bidez artistari buruz ikasi ahal izango dute.



Oteiza, Arantzazuko Ama Birjinaren santutegiko fatxadako eskultura multzoa atzean duela.